

# Gazteberri

## Edukiak:

Elkartasuna ez da delitua	2
“Elkartasunezko txioak” Ibon Garcia kolaborazioa	2
Ekinean murgildu eta ekintzetan blai	3
Haritz Perez: “Oso harro gaude Eusko Alkartasun- nako kide izateaz, Eusko Alkartasuna indartu izan- naz eta indartzen jarrai- tzeaz”	3
Hostoaren martxarekin Alkartasuna zabalduz!	4-5
Kontraportada	6

## Agenda:

- **Urriak 5:** Presoen aldeko manifestazioa. 17.15 La Casillano Musika Kioskoan.
- **Urriak 6:** Kilometroak Tolosan.
- **Urriak 12:** EAko Batzar Nazionala Bilbon.  
- LOMCE
- **Urriak 20:** Nafarroa Oinez Tutreran.
- **Urriak 26:** Manifestazio Nazionala Bilbon
- **Azaroak 2:** Baionako alkartetxeko inaugurazioa

## Gazte Abertzaleak irimoki gaitzetsi zuen Herriraren aurkako sarekada

Donostia, 2013/10/01

Gazte Abertzaleak Herriraren aurkako operazio poliziala gaitzetsi du, Euskal Herriak bizi duen egoeran kabidarik ez duelako.

Gazte erakundeak onartezina deritza orain hamarnaka urtetako ekintza polizial, jarrera bortitz eta errepresibora atzera garamatzaten oлдarkeriok.

Urratsez urrats irekitzen ari garen bakeranzko eta normalizatorako bide honetan, estatu espainiarrak nahiz frantsesak uneoro ezartzen dituzten zailtasunak kontrako norabidean doaz; jendartearen nahia-  
ren aurka eta abaguneak zapuzteko asmotan.



(ikus 2. orrialdea)

## Amurrio 2013: “Udazkeneko haizeek, haritz hostoak berrituz”

Aurten ere Alkartasun Eguna probestuz, Gazte Abertzaleak asteburu oso bat programatu du bere militante nahiz jarraitzaileei formakuntza ikastaroak eskaintzeko.

Alkartasun Asteburu “Udazkeneko haizeek, haritz hostoak berrituz” lemapean egin da, azken urteotan emandako biziberritzea indartu eta azpimarratzeko.

Modu berean, Aiaraldeko EAko lagunekin ibiltzeko aukera aparta izan dugu.

(ikus 3. orrialdea)

2 orrialdea

## “Elkartasuna ez da delitua”

“Guardia Zibila erratu da: Bilbon eta @herrira info ren egoitzara sartu ordez, @elkartasuna ren egoitzan sartu berri dira” (@maidercarrere)

“Operazio poliziala @herrira info ren kontra!!Elkartasun mugimenduaren aurkako kolpea!!Besarkada bat kide guztiei #aldehemendik” (@gazte)

“Bilbon bizitzen ari garena beste garai batzuk burura dakarzkigu!! #aldehemendik” (@gazte)

“Elkartasuna erakustea eta praktikan jarzea terrorismoa bada,herri oso bat inkisiziotik pasa beharko gara #herrira #aldehemendik” (@maidercarrere)

“Adi gazte!!Euskal Herri osoan zehar deituko diren elkartasun konzentrazioetara joan!! #aldehemendik” (@gazte)

“Una fraternal abraçada als i les camarades de @gazte @elkartasuna davant la impunitat policial!! #askatasuna #freedom #llibertat” (@JERCinter)

“Hernanin gertatutakoak ez dauka izenik!! @amalurmendizaba Amaiurreko senataria zauritu du ertzaintzaik!!Besarkada handi bat eta zaindu” (@mikelarresegor)

Bakea lortzea eskutan dutenek azpikeria legal zikinak, armak eta beldur soziala, atxiloteta politikoak erabiltzea nahiago dute.Koldarrak!! (@iriaepaltza)

**Gaztekideek harriduraz hartu dute Estatuak aurrera eraman duen azkeneko sarekada.** Gazte Abertzaleak prozesu honetan lanean jarduten duten eragileekin bat egiten du eta Herrirako kide eta lagunak diren atxilotuei bere elkartasuna eta besarkadarik beroena helarazi nahi die.

“Elkartasuna ez da delitua, baina herri honek oraindik oztopoak jasan beharko dituela argi dugu” dio Haritz Perezek. “Urteetan izandako abagune garrantzitsuenetariko baten aurrean gaude. Horregatik nahi gaituzte geldiarazi estatu frantsesak nahiz espainolak ” dio Gazteko arduradunak.

Gogora ekarri du orain pare bat urte, Herrira sortu zenetik, lan-kidetzan egon direla eta harreman aberatsa sortu dela bi eragileen artean. “Bai Maider Carrererekin batera aurreko Gazteko batzordean nengoela, baita oraingo batzordekidok ere, harreman zuzena izan dugu atxilotuekin . Benetan latza da

gertu sentitzen dituzunak ezintasun egoera horretan ikustea.”.



**Maider Carrere: “argi dago,ez gaituzte geldituko”**

Duela 4 urte hasitako mugimenduen barnean koka dezakegu Herriraren sorrera. Presoen inguruan egin beharreko lanketa guztiak, Giza eskubideei atxikituta, sortutako gizarte mugimendua da. Carrerek, Gazte Abertzaleakeko Idazkari Nagusi ohiak adierazi du “2009tik aurrera bizi izan ziren proiektu eraikitze berriek,

garaiekin bat zetozenak, euskal gizartearentzat bultzada berriak zirenak, ez ziren eta ez dira inoiz erosoak izan espainiar nahiz frantziar estatuentzat”. “Historia eginda, herri honetako gizarte mugimenduek oztopo asko bizi behar izan dituzte, baina argi dago: ez gaituzte geldituko” azpimarratzen du Betigazteak.

Berak ere atxilotuekiko elkartasuna adierazi du, ezagutzeko eta lan egiteko aukera izan duelako beraiekin batera eta argudiatu du “gaur haiek dira baina bihar edonor izan daiteke”.

Beraz, urriaren 5ean 17.30n la Casillatik aterako den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu du Gazte Abertzaleak, tantaz tanta Itsaso zabal eta askea osatzeko guztion artean.

**GIVE PEACE A CHANCE**



## “Elkartasun txioak”

**Ibon Garcia –Gazte Abertzaleakeko Komunikazio Idazkaria-**

Galdakao, 2013/10/02

Elkartasuna ez da paperean soilik gelditzen den hitza, edo hitzez hitz hegan atera daitekeen sentimendua. Azkeneko sarekadarekin txioen- gune naturala den Twitterra gori- gori izan dugu elkartasun mezuekin.

Gazte Abertzaleakeko kideok, eta hain gazte ez direnak, bertan egon gara txioa, momentuan momentuko albisteak eta grinak azaleratzen.

Gazte Abertzaleakeko twitter kontuan (@gazte) jaso ditugun txio batzuk orrialde honetako ertzean aurki ditzakezue.

Argi gelditzen da operazio polizial honek ez gaituela txunditu, horrelako sasi-justizia pairatzen jada ohituak baikaude . Hala ere, tristezia nabarmenki jasotzen da horrelako egoera baten aurrean, bidea egiten ari garenon aurka, herri honen aurka, jotzen baitute.

Gaur Herriraren izena Euskal Herriko kronika beltzenetara pasatzeko esfortzua egiten ari diren horiei, gure irribarrerik handiena erakutsiko diegu, oztopoak oztopo, txioz txio, Bilboko kaleak urriaren 5ean berriz ere beteko ditugulako eta inoiz baino sakonago, Itsaso izango garelako.

## “Ekinean murgildu eta ekintzetan blai”

**Gazte Abertzale**akeko kideak Aiaraldeko inguru-etara joan dira aurten, udazkenero antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartzeko. 19. ikastaro saioa izan da aurten goa, eta Antolakuntza idazkari Mikel Arreseigorrren esanetan “ekinean murgildu eta ekintzetan blai amaitu dute aurtengo saioan gaztekideek eta b e t i g a z t e e k ” .

Parte hartzaileen gorakada nabarmendu dute antolakuntzatik, eta bide honetan jarraituz gero “datozen ikastaroetan eskaintzaren kopuruarekin arazoak izango ditugu. Baina arazoa jendetza bada, arazo baina, pozteko arrazoi izango da!” .

Aurten talde lanerako ikastaroa Iria Epalza gazteak eman du, “gazteen hezkuntza giro lasai eta nabarmenki alai batean

egitea garrantzitsua delako” azpimarratu du Arreseigorrrek.

**“gazteen hezkuntza giro lasai eta nabarmenki alai batean egitea garrantzitsua da”**  
(M. Arreseigor)

Bestalde nabarmentzekoa da bigarren urtez jarraian Mariano Alavarekin izan duten topaketa Arabako Txakolinaren urteko dastaketa egiteko eta bere ezagutzan sakontzeko. “Esker oneko hitzak besterik ez ditugu Marianorekiko, beste urte batez etxean bezala sentiarazi gaituelako eta Amurrioko EAKideek giro ederra eskaini digutelako. Benetan zoragarria izan da esperientzia” dio **Gazte Abertzale**akeko Antolakuntza idazkariak.



### Ikastaro batekin amaitu eta hurrengoari ekin.

Datorren Udaberriko ikastaroetako makinaria martxan jarri dute dagoeneko. “ikastaroen hobekuntzan gabilta eta Gaztekideen ekarpenekin lortuko dugu”

Eta beharrik ere, aurten afiliatu berri diren militantei eskaintza berriak antolatu nahi dizkiete “norberak hobekien datorrena aukeratzeko eskaintzen diren alorretan” .

### HARITZ PEREZ: “OSO HARRO GAUDE GAZTE ABERTZALEAKEKO KIDE IZATEAZ, OSO HARRO EUSKO ALKARTASUNA INDARTU IZANAZ ETA OSO HARRO INDARTZEN JARRAITZEAZ”

Urteroko kontua da, eta kontu horretako protagonistak gu gara.. Alkartasuna Egunean Gazte Abertzaleakeko kideak buru-belarri murgildu ginen Eusko Alkartasunako langileekin batera eguna antolatzeko. Gazte erakundeak konpromiso indartsua dauka nagusien alderdiarekin eta horren erakusgarri urtero-urtero bere presentzia handitzen doala egun handian.

Konpromiso honen mugarri Haritz Perezen diskurtsoa izan zen, sutuki esan baitzuen “oso harro gaude Gazte Abertzaleakeko kide izateaz, Eusko Alkartasuna indartu izanaz eta indartzen jarraitzeaz”. Gazte erakundeko arduradunak Eusko Alkartasunako ibilbide historikoa azpimarratzeaz gain, 30 urte ondoren eta PNVk botatako mezu interesatuen ondoren “non gelditu da erabakitze eskubidea?” ihardetsi zuen.

Amaitzeko ,zorrotz eta tinko, hitz ozenekin argi esan zuen “Independentziara eramango gaituen bidea jorratzen jarraitzen dugu, euskal bidea eginez, katalan eta eskoziarrekin bat eginez, mundu osoari erakutsiz herrien ahotsa errespetatua izan behar dela. Hau guztia ez da lan makala baina 25 urtetan egin badugu beste 25 urtetan ere iraungo genuke eta iraungo dugu, baina ziur gaude hori baino lehen helduko garela helmugara: Independentziara!”





4 orrialdea

# Hostoaren martxarekin Alkartasuna zabalduz!





## GAZTE ABERTZALEAK

GIPUZKOA: Portuetxe bidea 23-1. -20018 (Donostia)

BIZKAIA: Areatza 2-3. -48005 (Bilbo)

ARABA: San Prudentzio 3 -01005 (Gasteiz)

NAFARROA: Gaztelu enparantza 49-1. - 31001 (Iruñea)

IPARRALDE: Panecau kalea 34 - 64100 (Baiona)

Telefonoa: 943.020.130

Fax: 943.020.131

Korreo: info@gazteabertzaleak.org



Materiala eskuratu nahi duzu? Zure herrian pegatina hauek izan nahi dituzu?

**JAR ZAITEZ  
GUREKIN KONTAKUAN ETA ESKURATU  
SALGAI DUGUN MATERIALA!**

info@gazteabertzaleak.org



Irailak 28an Abortuaren zigorgabetzea aldarrikatu genuen, beste batzuen artean abortuaren aldeko kanpaina hau bultzatuz. GAZTE ABERTZALEAKEK Euskal Herriko eta munduko biztanle guztiek dituzten eskubide eta askatasunen defentsaren aldeko apustu irmoa

## GUREKIN BAT EGINEZ, GEHIAGO IZANGO GARA! ZUREKIN BAT EGINEZ, HOBETO EGINGO DUGU!

2012ko abenduan Gazte Abertzaleak ospatu genuen Biltzar Nagusia, non Haritz Perez Idazkari Nagusi aukeratu genuen, afiliazio kanpaina berri bati hasiera eman genion. Herriz herri barreiatzen ari garen afiliazio kanpaina da, jada fruituak ematen ari dena. Baina horretarako funtsezkoa da zure konpromisoa izatea, zure inguruan dauden gazteei gure berri emateko.

XXI. mendea geure eskuetan dagoela diogunean, gazteok mundu oso bat iraultzeko ahalmena dugula adierazi nahi dugu. Gure txikienetatik hasita, handienetara doazen guneak. Hezkuntza eta Giza Eskubide guztien errespetuan oinarrituta.



5 zutabe sendo nabarmendu nahi ditugu:

**Independentzia VS Zatiketa administratiboa:** 7 lurraldeak osotasun ideologiko ezker-tiar baten alde, zure esku.

**Elkartasuna internazionalista VS Zapalketa internazionala:** "Inor ez zapaltzeko gogoia, zapalduak ez izatekoa" lemapean elkartasuna internazionalista gidari, Europako markoan, Euskal Errepublikak Soziala eraikitzeko elkarlanean dihardugu.

**Justizia soziala VS Sistema neoliberalra:** "beste mundu bat posible da" leloarekin bat gatzelako, gure etsaiak kapitalismoa eta indibidualismoa, matxismoa eta patriarkatua, faxismo eta arrazakeria, intolerantzia eta edozein motatako indarkeria dira. Feminismoa, justizia soziala eta garapen iraunkorra, zentzurik zabalenean, mundu honetan dauden arazoaren giltzarria dela aldarrikatzen dugu.

**Demokraziaren ezarketa erreala VS Zentzugabeko gidaritzako politikoa:** Demokraziaren ezarketa erreala aldarrikatzen dugu, inongo merkatu eta enpresa handien menpe ez dagoena: hiritarren parte hartzean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituta begirune eta tolerantziaren eredu bihurtuko dena.

**Formazioa eta ekintza politiko zuzena da gurean ardatza, gazte erakunde politikoak baikara,** gure ustetan hauek baitira, erakundetako lanarekin batera, sistema eraldatzeko bitartekoak.

Izan zaitez Gazte Abertzaleak laguntzaile eta etorri/ekarri lan honetan lagunduko gaituzten kideak eta "ideak" eta bideak!

Mikel Arreseigor Astibia  
Antolakuntza Idazkaria